



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko maiatzaren 9a

49. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011eko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren kontuei buruzko aholkularitza-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (9. or.).
- Kontuen Ganberak 12/2010 Foru Legeak agindurik administrazio publikoetako langileei aplikatutako soldata-murrizpenaz emandako fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (17. or.).
- Arartekoaren Kontu Orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (24. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011eko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Kontseiluaren 2011ko ekitaldiaz emandako fiskalizazio-txostena ikusirik, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñea, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011eko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I.** Sarrera (2. or.).
- II.** Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (2. or.).
- III.** Nafarroako Kontseilua (3. or.).
  - III.1. Definizioa eta eginkizunak (3. or.).
  - III.2. Kideak (3. or.).
  - III.3. Araubide ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzkoa (3. or.).
  - III.4. Langileak (3. or.).
  - III.5. Araubidea (3. or.).
  - III.6. Nafarroako Kontseiluaren jarduera (4. or.).
- IV.** Iritzia (5. or.).
  - IV.1. Urteko kontuak (5. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (5. or.).

Eranskina finantzen egoera-orriak (6. or.).

### **I. SARRERA**

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Nafarroako Kontuen Ganbera honek Nafarroako Kontseiluaren 2011ko urteko kontuen erregulartasunaren fiskalizazioa egin du.

Fiskalizazio-lan hau Kontuen Ganberak 2012rako onetsitako jarduera-programan sartu zen, eta auditoriako teknikari batek eta auditore batek osaturiko talde batek egin zuen 2012ko apirilean, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskerrak eman nahi ditugu Nafarroako Kontseiluko langileek lan hau egiteko eman diguten laguntzagatik.

### **II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA**

Lan hau eginez, ondoko puntuoi buruz dugun iritzia adierazi nahi dugu:

- Ea Nafarroako Kontseiluaren 2011ko kontuek zehazki islatzen duten, alderdirik behinenetan, erakunde horren 2011ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta orokorrean onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu diren horiek.

- Ea 2011n, Nafarroako Kontseiluaren jarduerari aplikatzekoa zaion legedia bete den.

Lan honen aztergaia Nafarroako Kontseiluaren 2011ko ekitaldiko kontuak izan dira: horretan aurrekontuaren balantzea, emaitzen kontua eta memoria sartzen dira.

Lan hau sektore publikoaren auditoriari dagokionez Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko eta Kontuen Ganbera honek bere fiskalizazio-eskuliburuan garaturiko printzipioei eta arauei jarraituz egin da. Gure iritzian behar adina frog

lortzeko eta aipatutako fiskalizazio-helburuak lortzeko beharrezkotzat jo ditugun auditoriako proba eta teknika guztiak aplikatu dira.

### III. NAFARROAKO KONTSEILUA

#### III.1. DEFINIZIOA ETA EGINKIZUNAK

Nafarroako Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile gorena da. Bere eginkizunen jardunean, Nafarroako Kontseiluak Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta gainerako ordenamendu juridiko guztia betetzen dela begiratuko du. Kontseiluaren irizpe- nek ezin izango dute abagune edo komenientziari buruzko baloraziorik eduki.

Nafarroako Kontseiluak bere eginkizunak aurrera eramateko autonomia organiko eta funtzionala izango du, bere objetibotasuna eta independentzia bermatuko badira. Bere eskumen-esparru berezia du eta Kontseiluko kideei aplikatzeko zaien araubideak kalifikazio tekniko zorrotza izan dezatela eskatzen du, haien neutraltasuna eta inpartzialtasuna ziurtatzeko.

Urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Eraentza Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa Erreformatzekoak, 28 ter artikuluan estatutu-mailako kategoriara jasotzen du Nafarroako Kontseilua.

#### III.2. KIDEAK

Nafarroako Gobernuko lehendakariak izendatutako zazpi kidek osatzen dute Kontseilua; nafartasun politikoa eta gaitasun eta ospe aitortua duten legelarien artean hautatzen dira: bost Nafarroako Parlamentuak proposatzen ditu, bere kideen gehiengo osoaz hautatu ondoren; gainerako biak Nafarroako Gobernuak proposatzen ditu.

Kontseiluko gobernu- eta erabaki-organoa Osoko Bilkura da, kontseiluko kide guztiek osatua. Organo horrek hautatzen ditu lehendakaria eta idazkaria.

Nafarroako Kontseiluaren ordainsarien ereduak, Estatu Kontseiluarenak eta beste autonomia erkidego batzuetako kontseilu aholku-emaileenak ez bezala, ez du aintzat hartzen bere kideen profesionalizazioa, eta, hala, bertaratzeengatik dieten eta emandako zerbitzuengatik ordainsarien sistemaren bidez ordaintzen zaie.

#### III.3. ARAUBIDE EKONOMIKO-FINANTZARIOA ETA AURREKONTUEI BURUZKOA

Nafarroako Kontseiluaren aurrekontua programa independente gisa dago sarturik Nafarroako aurrekontu orokorretan.

Nafarroako Kontseiluak autonomia du bere gastuen egoera-orria prestatu eta betetzeko, aplikatzeko zaien legediaren arabera, eta Nafarroako Ogasun Publikoa arautzen duten oinarri eta xedapenen mende dago. Bere aurrekontua eta kontuak bere gisa aurkezten ditu, bere kontabilitatearekin, 2005ez gero.

Eduki ekonomikoko eskubide eta betebeharrak izatea edota funtsen edo baloreen mugimenduak egitea dakarren Nafarroako Kontseiluaren ekintza, dokumentu eta espediente oro Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzailletza Orokorraren kontrolaren mende dago.

Nominak Nafarroako Gobernuak prestatu eta ordaintzen ditu, eta Kontseiluari egindako transferentzia arrunt gisa erregistratzen ditu zenbatekoak. Kontseiluak, bere aldetik, zenbateko hori langileria-gastu eta diru-sarrerara arrunt gisa kontabilizatzen du bere aurrekontuan.

Nafarroako Kontseiluaren 2011 urterako aurrekontua 558.504 eurokoa da.

Betetze-maila ehuneko 59 izan da gastuetan; 331.647 euro, guztira. Langileria-gastuak ehuneko 39 dira eta ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak ehuneko 59.

Diru-sarrerak 474.171 eurokoak izan ziren, eta haien betetze-maila ehuneko 85ekoa. Diru-sarrera horien ehuneko 98 Nafarroako Gobernutik jasotako transferentzia arruntak dira.

2011ko ekitaldiaren emaitza gisa, Nafarroako Foru Ogasunari itzuli beharreko 142.524 euroko superabit bat izan da.

#### III.4. LANGILEAK

Nafarroako Kontseiluaren 2011ko plantilla organikoan bi langile agertzen dira: legelari bat, zerbitzu-eginkizunetan dagoena, eta idazkari bat, behin-behineko lan-kontratuduna

#### III.5. ARAUBIDEA

Nafarroako Kontseilua arau hauen mende dago, besteak beste:

- Nafarroako Kontseilua sortu zuen martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea, abenduaren 10eko 25/2001 Foru Legeak eta abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak aldatu zutena.

- Otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretua, Nafarroako Kontseiluaren antolamendu eta jardunbidearen Erregelamendua onesten duena, ekainaren 12ko 205/2000 Foru Dekretuak eta urtarrilaren 21eko 15/2002 Foru Dekretuak aldatu zutena.

- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu Publikoari buruzkoa.

- Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

- 22/2010 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea.

### III.6. NAFARROAKO KONTSEILUAREN JARDUERA

2011n, Nafarroako Kontseiluak 53 irizpen-eskera erregistratu zituen. Horietatik 18tan, espedien-

tea osatu gabetzat jo zen eta dokumentazio osagarria eskatu zen. Bi espediente irizpena eman gabe geratu ziren, gainera, irizpena eskatutako agintariak erretiratzeko eskaturik, eta bat irizpena eskatutako agintaritzari itzuli zitzaion, Nafarroako Kontseiluaren antolamendu eta jardunbidearen Erregelamenduan agintzen diren baldintzetara egokitzen ez zelako.

2011n zehar 44 irizpen eman zituen Nafarroako Kontseiluak. Horietatik sei 2010ean egindako eskariei zegozkien, eta gainerako 38ak 2011. urtean zehar egindako kontsultei zegozkienak ziren.

Nafarroako Kontseiluak 2000. urtean hasi zue-  
nez bere jarduera, ondoren erakunde honek harrez gero emandako irizpide kopuruaren bilakera adierazten da, gaiaren arabera sailkatuta:

Gaia	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	Guztira
Foruaren Hobekuntzaren aldaketa	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	2
Legegintzako Foru Dekretu proiektua	0	0	3	0	0	0	0	0	1	0	0	0	4
Konstituzioaren kontraktasun-errekurtsoak jartzea	1	1	1	0	2	1	0	2	0	0	2	0	10
Hitzarmen Ekonomikotik eratorritako erregelamenduen proiektuak	3	8	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	11
Alderdien artean Nafarroa duten lankideta hitzarmenak eta akordioak	20	31	1	5	2	4	1	0	5	0	1	0	70
Legeak edo haien aldaketak betetzeko erregelamenduen proiektuak	18	14	36	45	20	30	21	18	25	20	32	24	303
Akordioak, judizialak zein judiziotik kanpokoak	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	1
Berrikuspen-errekurtso administratiboak	5	0	9	3	2	6	1	0	0	3	3	3	35
120.202,42 eurotik gorako kalte-ordainen erreklamazioak	3	3	9	8	7	6	5	11	8	10	8	8	86
Administrazio-egintzak ofizioz berraztertzea	1	5	13	5	4	6	8	5	7	9	5	7	75
Udal mugarteak aldatzeko espedienteak	0	0	0	2	5	2	0	1	1	2	0	1	14
Administrazio-kontratu edo -hitzarmenen interpretazio, deuseztapen edo iraupenaren, kontratista aurka agertzen delarik	3	5	3	1	1	2	3	1	4	2	3	0	28
Bestelako gaiak	3	2	5	4	2	4	3	2	0	3	6	1	35
<b>Guztira</b>	<b>58</b>	<b>69</b>	<b>80</b>	<b>74</b>	<b>45</b>	<b>61</b>	<b>42</b>	<b>40</b>	<b>51</b>	<b>49</b>	<b>61</b>	<b>44</b>	<b>674</b>

Iturria: 2011ko jardueraren memoria. Nafarroako Kontseilua.

Aise ikus daitekeen bezala, Kontseiluak emandako irizpen guztien ehuneko 45 legeak edo haien aldaketak betetzeko erregelamenduen proiektuei buruzkoak dira (2011n, irizpen guztien ehuneko 55 dira).

Ondoren beste hauek datoz: 120.202,42 eurotik gorako kalte-ordainen erreklamazioei buruzko irizpenak, ehuneko 13 guztira (2011n ehuneko 18), Administrazio-egintzak ofizioz berraztertzeari buruzkoak, ehuneko 11 (2011n, ehuneko 16 izan ziren) eta alderdien artean Nafarroa duten lankidetzaz hitzarmenak eta akordioak, ehuneko 10 (2011n ez zen irizpen bat bera ere eman).

#### **IV. IRITZIA**

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Nafarroako Kontseiluaren 2011ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio-orriak eta finantza-kontuak aztertu ditugu. Kontseiluaren ardurapean eginak dira, eta txosten honetako IV. atalean jaso dugu horien egoera.

Eginiko azterketatik eta berrikusitako laginetik honako iritzi hau ondorioztatzen dugu:

#### **IV.1. URTEKO KONTUAK**

Gure iritzian, Nafarroako Kontseiluaren 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokien ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, hartan jasotzen diren kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

#### **IV.2. LEGEZKOTASUNA**

Nafarroako Kontseiluak 2011ko ekitaldian izan duen ekonomia- eta finantza-jarduera gaur egun indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera izan da, oro har.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Karen Moreno Orduña auditore andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

**ERANSKINA FINANTZEN EGOERA-ORRIAK****I. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

## Gastuen Aurrekontuaren likidazioa

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak	Ordaindutakoa
1. Langileria-gastuak	181.304	181.304	127.687	127.687
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	338.200	338.200	196.768	196.768
6. Inbertsio errealak	39.000	39.000	7.192	7.192
Gastuak, guztira	558.504	558.504	331.647	331.647

## Diru-sarreraren Aurrekontuaren likidazioa

Azalpena	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubideak	Kobratutakoa
	519.000	519.000	465.887	465.887
-sarrerak	504	504	1.092	1.092
-transferentziak	39.000	39.000	7.192	7.192
-sarrerak guztira	558.504	558.504	474.171	474.171

## Aurrekontu-emitza

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak	Aitorturiko betebehar garbiak	Zenbateko n aldea
1. Eragiketa ez-finantzarioak (1-7 kap.)	474.171	331.647	142.524
2. Finantza aktiboekiko eragiketak (8. kap.)	0,00	0,00	0,00
I. 1+2 ekitaldiko aurrekontuaren emitza	474.171	331.647	142.524
II. Finantza-pasiboen aldaketa garbia	0,00	0,00	0,00
III. Ekitaldiko aurrekontuaren saldoa	474.171	331.647	142.524
IV. Ekitaldiko finantzaketa-superabita			142.524

## 2. DIRUZAINZAKO GERAKINA

Kontzeptua	Kontua	Zenbatekoa
(+) I. Ekitaldiaren amaieran kobratzeko dauden zordunak		0
Aurrekontu korronteko diru-sarrerren aurrekontukoak	430	
Aurrekontu itxiko diru-sarrerren aurrekontukoak	431	
(-) II. Ekitaldiaren amaieran ordaintzeko dauden hartzekodunak		142.524
Aurrekontu korronteko diru-sarrerren aurrekontukoak	400	
Aurrekontu itxiko diru-sarrerren aurrekontukoak	401	
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	476	142.524
(+) III. Ekitaldi amaierako funts likidoak	57	142.524
(-) IV. Diruzaintzako atxikitako gerakina		0
V. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (I-II+III-IV)		0
= Diruzaintzako gerakina, guztira (IV+V)		0

## 3. EGOERA-BALANTZEA

## AKTIBOA

Kontzeptua	2010	2011
Ibilgetu garbia	17.921	18.345
Ibilgetu materiala	17.921	18.345
Altzariak eta tresnak	2.597	6.945
Informazioa prozesatzeko tresneria	6.856	5.754
Irudi korporatiboa	2.813	1.876
Bestelako ibilgetu materiala	5.655	3.770
Aktibo zirkulatzaila	86.261	142.524
Diruzaintza	86.261	142.524
Bankuak eta kreditu-erakundeak	86.261	142.524
Aktiboa, guztira	104.182	160.869

## PASIBOA

Kontzeptua	2010	2011
Funts berekiak	17.921	18.345
Ondarea	17.921	18.345
Epe laburreko hartzekodunak	86.261	142.524
Foru Ogasun Publikoa, kreditu-itzulketa dela-eta	86.261	142.524
Pasiboa, guztira	104.182	160.869

## 4. EMAITZA-KONTUA

## Emitza arrunten kontua

Zor		Hartzeko	
127.687	Langileria-gastuak	Finantza diru-sarrerak	1.092
196.768	Kanpoko lanak, hornikuntzak eta zerbitzuak	Transferentzia arruntak	465.887
6.768	Amortizazioa 2011	Ibilgetuetarako diru-laguntzen emaitzen egozpena	6.768
142.524	Aurrezkia (emaitza positiboa)		
473.747	Guztira	Guztira	473.747

## Emitzaren banaketa

Zor		Hartzeko	
142.524	Ondarearen emaitza ekonomiko doitua	Foru Ogasun Publikoa, kreditu-itzulketa dela-eta	142.524
142.524	Guztira	Guztira	142.524



## **Nafarroako Parlamentuaren kontuei buruzko aholkularitza-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Parlamentuaren 2011ko ekitaldiko kontuez emandako aholkularitza-txostena ikusirik, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñea, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Nafarroako Parlamentuaren kontuei buruzko aholkularitza-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (9. or.).
- II. Nafarroako Parlamentua (9. or.).
- III. Helburuak eta norainokoa (10. or.).
- IV. Iritzia (10. or.).
- V. 2011ko ekitaldiko kontuen egoera-orrial (11. or.).
  - V.1. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria (11. or.).
  - V.2. Diruzaintza-gerakina (12. or.).
  - V.3. Balantzea (13. or.).
  - V.4. Ekonomi eta ondare emaitzako kontua (euroak) (14. or.).
  - V.5. Eskudiru-fluxuen egoera (15. or.).
  - V.6. Ondare garbiaren aldaketen orobateko egoera (16. or.).

#### **I. SARRERA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2012ko martxoaren 1ean harturiko Erabakia betez eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak ezartzen duenarekin bat etorriz, 2011ko Nafarroako Parlamentuaren Kontu Orokorrei buruzko Aholkularitza Txosten hau prestatu da; kontu horiek 2012ko martxoaren 8an jaso zituen Ganbera honek.

Azterketa-lana auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak egin zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntzarekin. Azterketa-lana martxoaren bigarren hamabostaldian egin zen.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Parlamentuko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

#### **II. NAFARROAKO PARLAMENTUA**

Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzeko du eta bere esku du legegintzako ahalmena.

50 parlamentarik osatzen dute. 2011ko ekainaren 15ean egin zuen Parlamentua eratzekeo bilkura, zortzigarren legegintzaldiari hasiera emateko; sei talde politiko dira, 2011ko maiatzaren 22an izandako hauteskundearen emaitzen ondorioz.

Parlamentuak Osoko Bilkuraren eta Batzordearen (arrunt edo berezien) bitartez funtzionatzen du. Gobernu-organoak Lehendakaria, Mahaia, Eledunen Batzarra eta Batzorde Iraunkorra dira.

Nafarroako Parlamentuaren aurrekontua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartzen da, eta haren kontuak Nafarroako Kontu Orokorren zati bat dira.

Nafarroako Parlamentuari 2011n aplikatzekoa zaien araudia ondoko hau da, besteak beste:

- Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

- Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioa, Parlamentuko Mahaiak 2000ko maiatzaren 22an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, kontratu publikoei buruzkoa.

- Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko Testu Bategina, Parlamentuko Mahaiak 2007ko irailaren 8an hartutako Erabakiaren bidez onetsia; Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Erreforma, Osoko Bilkurak 2011ko martxoaren 24an hartutako Erabakiaren bidez onetsia; biak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko Testu Bateginak, Parlamentuko Mahaiak 2011ko irailaren 12an hartutako Erabakiaren bidez indargabetuak.

- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatu-tua, Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak

1991ko martxoaren 20an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2008tik 2011ra bitarteko lan baldintzei buruzko Erabakia, Parlamentuko Mahaiak 2009ko urtarilaren 28an onetsia.

- Parlamentarien ordainsarien araua, Parlamentuko Batzorde Iraunkorraren Mahaiak 2007ko ekainaren 15ean hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

### III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Lanaren helburuak hauek dira:

- Nafarroako Parlamentuaren 2011ko ekitaldiko kontuek, alderdirik behinenetan, erakunde horren 2011ko abenduaren 31ko ondarea, finantza-egoera, aurrekontuaren betetze-maila eta emaitza ekonomikoa zehazki islatzen duten egiaztatzea, aplikatzekoak zaizkien kontabilitate-printzipioen arabera.

- Nafarroako Parlamentuak 2011ko ekitaldian izan duen jardueran indarrean dagoen legedia bete duen egiaztatzea.

Txostenaren norainokoa, Parlamentuaren 2011. urteko Kontuak dira; horiek prestatzeko eginkizuna eta horien edukia Parlamentuaren ardura dira; kontu horietan kontularitzako egoera-orriak sartzen dira: aurrekontuaren likidazio-egoera, balantzea, ekonomia- eta ondare-emaitzako kontua, ondare garbiaren aldaketan egoera, eskudiru-fluxuen egoera eta memoria.

Lan hori Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapoba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz gauzatu da.

### IV. IRITZIA

Gure iritzian, Nafarroako Parlamentuaren 2011ko ekitaldiko kontuek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastuen eta aurrekontuaren likidazioari eta 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, hartan jasota dauden kontabilitateko printzipio eta irizpidei jarraituz betiere.

Orobat, 2011ko ekitaldian zehar, Nafarroako Parlamentuaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da, oro har.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore M<sup>a</sup> Asunción Olaechea Estanga andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñea, 2012ko maiatzak 23.

Ganberako burua: Helio Robleda Cabezas

## V. 2011KO EKITALDIKO KONTUEN EGOERA-ORRIAK

## V.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA

## Gastuen Aurrekontuaren Likidazioa

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aitorturiko betebeharrak	Betetako portzentajea	Ordainketak	Ordaintzeke	Diruzainzagerakina
1. Langileria-gastuak	6.874.028	0	6.874.028	5.820.978	85	5.820.978	0	1.053.050
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	2.407.630	56.108	2.463.738	1.432.765	58	1.326.337	106.428	1.030.973
4. Transferentzia arruntak	3.031.737	0	3.031.737	2.904.935	96	2.873.658	31.277	126.802
6. Inbertsio errealak	568.210	34.794	603.004	277.688	46	260.229	17.459	325.316
8. Finantza-aktiboak	57.795	0	57.795	50.545	87	50.545	0	7.250
9. Finantza-pasiboak	102.399	-6.000	96.399	0	0	0	0	96.399
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>13.041.799</b>	<b>84.902</b>	<b>13.126.701</b>	<b>10.486.911</b>	<b>80</b>	<b>10.331.747</b>	<b>155.164</b>	<b>2.639.790</b>

## Diru-sarrerren Aurrekontuaren Likidazioa

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aitortutako eskubideak	Betetako portzentajea	Kobrantzak
3. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	2.860	0	2.860	76.890	2688	76.890
4. Transferentzia arruntak	12.295.535	0	12.295.535	12.295.535	100	12.295.535
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	15.000	0	15.000	41.434	276	41.434
7. Kapital-transferentziak	697.799	0	697.799	697.799	100	697.799
8. Finantza-aktiboak	30.010	84.902	114.912	43.245	38	43.245
9. Finantza-pasiboak	595	0	595	0	0	0
<b>Diru-sarrerak guztira</b>	<b>13.041.799</b>	<b>84.902</b>	<b>13.126.701</b>	<b>13.154.903</b>	<b>100</b>	<b>13.154.903</b>

Kontzeptuak	Aitortutako eskubide garbiak	Aitorturiko betebeharrak garbiak	Zenbatekoa
a. Eragiketa arruntak	12.413.858	10.158.678	
b. Kapital-eragiketak	697.799	277.688	
1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a+b)	13.111.657	10.436.366	
c. Finantza-aktiboak	43.245	50.545	
d. Finantza-pasiboak	0	0	
2. Finantza-eragiketak, guztira (c+d)	43.245	50.545	
I. Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (1+2)	13.154.902	10.486.911	2.667.991
Doikuntzak			
3. Gehitutako kredituak finantzatzeko funtsak			84.902
4. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze negatiboak			0
5. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze positiboak			0
II. Doikuntzak guztira (3+4+5)			84.902
Aurrekontu-emaitza doitua (I+II)			2.752.892

## V.2. DIRUZAINZTA-GERAKINA

Osagaiak	2011	2010
1. Funts likidoak	2.975.147	3.124.951
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	4.560	1.815
(+ ) aurrekontu korrontetik	0	0
(+ ) aurrekontu itxietatik	0	0
(+ ) aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	4.560	1.815
(+ ) merkataritzako eragiketetatik	0	0
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak.	2.900.390	3.041.864
(+ ) aurrekontu korrontetik	155.164	203.618
(+ ) aurrekontu itxietatik	0	0
(+ ) aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	2.745.226	2.838.246
(+ ) merkataritzako eragiketetatik	0	0
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+-2-3)	79.317	84.902
II. Gehiegizko finantzaketa atxikia	79.317	84.902
III. Kobratzeko zailak diren saldoak	0	0
IV. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina (I-II-III)	0	0

## V.3. BALANTZEA

	2011	2010
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>22.933.349</b>	<b>29.822.689</b>
<b>A) Aktibo ez arrunta</b>	<b>19.941.467</b>	<b>26.667.612</b>
I. Ibilgetu ukiezina guztira	170.625	664.358
3. Aplikazio informatikoak	169.576	663.626
5. Bestelako ibilgetu ukiezina	1.049	732
II. Ibilgetu material garbia	19.719.413	25.975.261
2. Eraikinak	17.644.089	22.085.851
5. Bestelako ibilgetu materiala	2.075.324	3.889.410
Makineria eta tresnak	322.117	763.104
Altzariak	212.672	1.108.297
Informazio-prozesuetako ekipoa	157.426	528.803
Garraio-osagaiak	0	138.326
Bestelako ibilgetu materiala	1.383.109	1.350.880
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	51.429	27.993
4. Bestelako finantza-inbertsioak	51.429	27.993
Epe luzeko maileguak	51.429	27.993
<b>B) Aktibo arrunta</b>	<b>2.991.882</b>	<b>3.155.077</b>
III. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	4.560	1.815
3. Administrazio publikoak	4.560	1.815
Osasun-laguntzako maileguen aurrerakinak	4.560	1.815
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak	12.176	28.311
4. Bestelako finantza-inbertsioak	12.176	28.311
Epe laburreko maileguak	12.176	28.311
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	2.975.146	3.124.951
2. Diruzaintza	2.975.146	3.124.951
	2011	2010
<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>22.933.349</b>	<b>29.822.689</b>
<b>A) ONDARE GARBIA</b>	<b>20.031.779</b>	<b>26.779.645</b>
I. Jarritako ondarea	19.952.463	26.694.744
Ondarea	13.248.178	19.990.459
Lagapenean jasotako ondarea	3.000	3.000
Jasotako ondare adskribitua	6.701.285	6.701.285
II. Sortutako ondarea	79.316	84.901
2. Ekitaldiko emaitzak	79.316	84.901
Atxikitako funtsak, gehitzeko daudenak	79.316	84.901
<b>B) PASIBO EZ-ARRUNTA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>C) PASIBO ARRUNTA</b>	<b>2.901.570</b>	<b>3.043.044</b>
II. Epe laburreko zorrak	1.180	1.180
4. Bestelako zorrak	1.180	1.180
Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	1.180	1.180
IV. Hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	2.900.390	3.041.864
1. Kudeaketa-eragiketengatik hartzekodunak	155.164	203.617
Aitorturiko betebeharren hartzekodunak, aurrekontu arruntean	155.164	203.617
3. Administrazio Publikoak	2.745.226	2.838.247
Gizarte Segurantzaren hartzekodun	71.650	77.079
Foru Ogasun publikoa hartzekodun, kredituen itzulketagatik	2.673.576	2.761.168

	2011	2010
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	12.993.334	13.492.081
a) Ekitaldikoak	12.993.334	13.492.081
a.2) Transferentziak	12.993.334	13.492.081
Gobernuaren kapital-transferentziak	697.799	1.011.380
Gobernuaren transferentzia arruntak	12.295.535	12.480.701
3. Salmenta garbiak eta zerbitzuak ematea	0	1.010
a) Salmenta garbiak	0	1.010
Argitalpenak	0	1.010
6. Beste diru-sarrera batzuk, kudeaketa arruntekoak	76.890	73.472
Itzulketak	76.890	73.472
<b>A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak guztira</b>	<b>13.070.224</b>	<b>13.566.563</b>
8. Langileria-gastuak	5.938.033	6.225.153
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	5.172.265	5.419.913
Soldatak eta ordainsariak	2.295.401	2.342.955
Behin-behineko langileen soldatak	443.244	478.742
Funtzionarioen soldatak	2.247.670	2.300.028
Kontratupeko langileen soldatak	68.894	126.806
Parlamentarien dietak eta garraioa	23.414	65.731
Bestelako dietak eta garraioa	39.275	33.553
Langileen bestelako gizarte-gastuak	35.456	53.695
Parlamentarien bestelako gizarte-gastuak	18.910	18.403
b) Gizarte-zamak	765.768	805.240
Enplegu-emailearen kargura dagoen Gizarte Segurantza	765.768	805.240
9. Eginiko transferentziak eta emandako diru-laguntzak	2.904.935	2.868.140
Transferentzia arruntak	2.904.935	2.868.140
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.405.796	1.420.893
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.098.405	1.133.165
c) Beste batzuk	307.391	287.728
12. Ibilgetuaren amortizazioa	844.267	
<b>B. Kudeaketa arrunteko gastuak guztira</b>	<b>11.093.032</b>	<b>10.514.186</b>
I. Kudeaketa arrunteko emaitza (aurrezkia edo desaaurrezkia) (A-B)	1.977.192	3.052.377
II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza	1.977.192	3.052.377
15. Finantza bidezko diru-sarrerak	41.434	21.695
b.2) Bestelakoak	41.434	21.695
Interesak	41.434	21.695
III. Eragiketa finantzarioen emaitza	41.434	21.695
IV. Ekitaldiko emaitza garbia (aurrezkia edo desaaurrezkia)	2.018.626	3.074.072

I. Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxuak	2011	2010
A) Kobrantzak	13.111.658	13.588.257
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	12.993.334	13.492.081
Gobernuaren kapital-transferentziak	697.799	1.011.380
Gobernuaren transferentzia arruntak	12.295.535	12.480.701
3. Salmenta garbiak eta zerbitzuak ematea	0	1.010
Argitalpenen salmenta	0	1.010
5. Kobratutako interesak eta dibidenduak	41.434	21.695
Interesak	41.434	21.695
6. Beste kobrantza batzuk	76.890	73.472
Itzulketak	76.890	73.472
B) Ordainketak	12.991.187	12.897.560
7. Langileria-gastuak	5.866.273	6.145.956
Lehendakaritzaren eta parlamentarien soldatak eta lansariak	2.295.401	2.342.955
Behin-behineko langileen soldatak	443.244	478.742
Funtzionarioen soldatak	2.247.670	2.300.028
Kontratupeko langileen soldatak	68.894	126.806
Enplegu-emailearen kargura dagoen Gizarte Segurantza	694.118	728.162
Parlamentarien dietak eta garraioak	23.414	65.730
Bestelako dietak eta garraioak	39.165	33.358
Beste langileria-gastu batzuk	35.456	51.772
Parlamentarien bestelako gizarte-gastuak	18.910	18.403
8. Eginiko transferentziak eta emandako diru-laguntzak	2.873.658	2.833.039
Transferentzia arruntak	2.873.658	2.833.039
10. Bestelako kudeaketa-gastuak	1.209.392	1.284.094
Errentamenduak	2.208	2.165
Konponketa eta kontserbazioa	215.999	250.074
Hornigaiak	187.825	212.108
Komunikazioak	54.939	90.271
Beste enpresa batzuek egindako lanak	486.737	434.793
Garraio-gastuak	14.359	13.492
Bulegoko materiala	53.481	62.773
Beste era batzuetako gastuak	193.844	218.418
13. Beste ordainketa batzuk	3.041.864	2.634.472
Aurrekontu arrunteko hartzekodunak	203.618	83.696
Foru Ogasun Publikoa, kreditu-itzulketak dela-eta	2.761.167	2.471.060
Gizarte Segurantza hartzekodun	77.079	79.716
Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (A-B)	120.471	690.697

II. Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxuak	2011	2010
C) Kobrantzak:	65.894	72.493
3. Inbertsio-jardueretako beste kobrantza batzuk	65.894	72.493
Epe luzeko maileguak	15.624	22.134
Epe laburreko maileguak, aurrerakinak	27.621	22.786
Osasun-laguntzako maileguen aurrerakinak	22.649	27.573
D) Ordainketak	336.169	392.058
4. Inbertsio errealen erosketak	260.229	321.984
6. Inbertsio-jardueretako beste ordainketa batzuk	75.940	70.074
Epe luzeko maileguak	39.060	11.718
Epe laburreko maileguak, aurrerakinak	11.486	32.228
Osasun-laguntzako maileguen aurrerakinak	25.394	26.128
Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (C-D)	-270.275	-319.565
VI. Eskudiruaren eta haren baliokide diren aktibo likidoen emendio/gutxitze garbia (I+II+III+IV+V)	-149.804	371.132
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran	3.124.951	2.753.818
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran	2.975.147	3.124.951

## V.6. ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN OROBATEKO EGOERA

	I. Jarritako ondarea	II. Sortutako ondarea	Guztira
A. Ondare garbia 2010eko ekitaldiaren bukaeran	26.694.744	84.902	26.779.646
B. Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketengatik eta akatsak zuzentzeko egindako doikuntzak	-6.092.915		-6.092.915
C. 2010eko ekitaldiaren hasierako ondare garbia	20.601.829	84.902	20.686.731
D. 2011ko ekitaldian ondare garbiak izandako aldaketak	-649.365	-5.541	-654.906
1. Ekitaldian izandako aitorturiko diru-sarrerak eta gastuak		79.361	79.361
3. Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk	-649.365	-84.902	-734.267
E. Ondare garbia 2011ko ekitaldiaren bukaeran	19.952.464	79.361	20.031.825



## **Kontuen Ganberak 12/2010 Foru Legeak agindurik administrazio publikoetako langileei aplikatutako soldata-murrizpenaz emandako fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko ekainaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak 12/2010 Foru Legeak agindurik administrazio publikoetako langileei aplikatutako soldata-murrizpenaz emandako fiskalizazio-txostena ikusirik, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2012ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Kontuen Ganberak 12/2010 Foru Legeak agindurik administrazio publikoetako langileei aplikatutako soldata-murrizpenaz emandako fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (17. or.).
- II. 12/2010 Legea (17. or.).
- III. Helburua, norainokoa eta mugak (19. or.).
- IV. Ondorioak (20. or.).
  - IV.1. Orokorrak (20. or.).
  - IV.2. Nafarroako Gobernua (21. or.).
  - IV.3. Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoak (21. or.).
  - IV.4. Udalak (22. or.).
  - IV.5. Mankomunitateak eta enpresa publikoak (23. or.).

### **I. SARRERA**

Ekainaren 12/2010eko 2011 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituen zenbateraino betetzen den aztertze asmoz sartu zuen Kontuen Ganberak lan hau 2011rako bere jardura-planean.

Azterketa-lana auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak egin zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin. Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Parlamentuko langileei, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikokoei, aztertu diren udaletakoei eta haien enpresetakoei, eta aztertu diren mankomunitateetakoei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

### **II. 12/2010 LEGEA**

Lege hori maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretua Nafarroarako egokitzeko lege bat da; Gobernuak 2010 eta 2011n hasieran aurreikusita zegoen defizita murriztea bizkortzeko hartutako konpromisoa betetzeko hartu ziren neurri bereziak jasotzen ditu barruan.

Dekretu horrek honela dio aitzinsolasean:

“Espainiako Gobernuak bere finantza publikoen iraunkortasuna bermatzeko duen konpromisoa argi ikusi zen Ministro Kontseiluak 2010eko urtarrilaren 29an onartu zuen 2010-2013 Egonkortasunerako eta Hazkunderako Planaren eguneratzean. Eguneratze horretan, Europar Batasunak ezarritako Gehiegizko Defizitaren prozedurari jarraituz, Administrazio Publiko guztientzat defizita Barne Produktu Gordinaren ehuneko 3raino jaitea hartu zen helburutzat.

Horrekin batera, 2010erako Berehalako Ekintza Plana, Estatuaren Administrazio Orokorreko 2011-2013 Zorroztasun Plana onartu ziren; gerotik, Politika Fiskal eta Finantzarioko Kontseiluak autonomia-erkidegoekiko eta autonomia-estatutua duten hiriekiko 2010-2013 bitarterako Hitzarmen Markoa onartu zuen; eta Toki Administrazioko Batzorde Nazionalaren barruan gisa bereko beste Hitzarmen Marko bat onartu zen.

Hala eta guztiz ere, egoeraren bilakaerak eta gure herrialdeak Europar Batasunaren barruan Diru Batasunaren eta euroguneko ekonomien alde hartutako konpromisoek behar-behar beharrezkoa bihurtzen dute aurreikusitako neurri horietako batzuk aurreratzea...”

“Administrazio publikoetako langileria-gastuek eramaten dute gastu arrunten zati nabarmen bat. Biztanleria Aktiboaren azkeneko Inkestak, 2010eko lehenengo hilabetekoari dagokionak, erakutsitako datuen arabera, sektore publikoko langileak biz-

tanleria aktiboaren ehuneko 13 dira, eta poliki-poliki urrituz joan dira 2005ez gero. Beste alde batetik, nazioarteko datuekin alderatuz, ELGEren azkeneko datuen arabera, kopuru hori gure inguruko beste herrialde batzuetakoak baino apalagoa da; Alemaniak edo Frantziak ehuneko 14,5 eta 25,2 baitituzte, esate baterako.

Ezaugarri nagusia nazioarteko finantzen krisiarekin sortu eta hazkunderan eta enpleguan eragina duen ekonomiaren krisiaren larritasuna duen egoera honetan, urgentzia handiko eginkizuna da administrazio publikoetako langileria-gastuak mugatzeko neurriak hartzea. Helburu horretarakoak dira Errege Lege Dekretu honetan sartu diren neurriak, urteko soldata-masa ehuneko bost murrizteko helburua dutenak.

Hala eta guztiz ere, soldatarik apalenetan izan lezaketen eragina arintzeko, murrizketa-neurriok progresibotasun-irizpideetan oinarrituta aplikatzen dira funtzionarioentzat, eta arau bereziak ematen dira lan-kontratupeko langileentzat, negoziazio kolektiboaren funtzioa aintzat hartzeko eta aldi berean gastuak murrizteko erabakiaren eraginkortasuna bermatzeko.

Tokiko erakundeek Errege Dekretu Lege honetan hartzen diren neurriek lortu nahi duten kontso-

lidazio fiskalak eskatzen duen ahaleginean parte hartuko dutela segurtatzeko, langileria-gastuak murriztuz aurreratzen dena gerakin negatiboak berdintzera, zorrak murriztera edo, halakorik behar denean, inbertsioak finantzatzera bideratuko dela aitortu beharra dago. Beste alde batetik, helburu horretarako, 2012ko ekitaldia arte atzeratzen da epe luzerako zorpetzeko eragiketak hitzartzea.”

Dekretu hori ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legearen bitartez egokitzen da Nafarroara.

Lege honen alderdi nagusiak azpimarratuko ditugu:

– 2010eko ekainaren 1etik aurrerako eraginarekin, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzutan dauden langileen urte osoko lansarien multzoak ehuneko bosteko urritzea izango du, 2010eko maiatzaren 31ko kopuruekin alderatuta.

– Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuan diharduten funtzionarioei eta estatutupeko langileei dagokienez, maila bakoitzeko hasierako soldata ondoren zehazten den portzentajearen murrizten da, eta ondoren adierazten diren urteko zenbateko hauetan finkatzen da data horretatik aurrera 2010. urterako:

Maila	Murrizketa (%)	Ondorioz ateratzen den urteko zenbatekoa
A	6,70	25.281,76
B	4,86	21.268,80
C	3,54	17.643,22
D	1,38	15.365,84
E	0,24	13.516,16

– Administrazio publikoen zerbitzuan diharduen lan-kontratupeko langileei legean ezartzen diren irizpide orokorren arabera aplikatzen zaie murrizpena.

– Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko zerbitzu-buruen lansariak ehuneko zazpi murrizten dira, Nafarroako Foru Komunitateko

Administrazio-ko zuzendari nagusienak ehuneko zortzi eta Gobernu-ko kideenak ehuneko hamabost.

– Aurrekontuen legean erakunde publikoetako zuzendaritzako langileentzat 2010. urterako finkatuta dauden lansariak eskala honen arabera murrizten dira:

Urteko zenbatekoa 70.000 eurokoa edo gehiagokoa dutenak	12 %
Urteko zenbatekoa 56.000 - 70.000 euro bitartekoa dutenak	8 %
Urteko zenbatekoa 56.000 eurotik beherakoa dutenak	7 %

– 2010eko ekainaren 1etik aurrerako eraginarekin, enpresa publikoek beren langileen lansarien kopuruan ehuneko bosteko murrizpena egingo dute batez beste. 2010eko maiatzaren 31ko kopuruekin alderatuta, artikulua honetan finkatutako irizpideen arabera, eta aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan hitzartutakoa errespetatuz betiere.

– Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko, haren fundazio publikoetako eta erakunde autonomoetako zuzendaritzako langileen lansariak ehuneko 7-12 bitartean murrizten dira, aipatu den eskalaren arabera.

– Toki-erakundeetan, neurri hauek aplikatzen diren baliabideak ondoren adierazten diren helburuotarako erabiliko dira, lehentasun-ordena honetan:

a) Azkeneko likidazioko diruzaintzako geroekin negatiboak onbideratzea.

b) Epe luzerako zorra murriztea.

c) Inbertsioak finantzatzea.

– Arau batek finkatzen ditu orobat Justiziako, Unibertsitateko, ikastetxe hitzartuetako eta Parlamentuko langileen lansari berriak.

### III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Txosten honen helburua Nafarroako Gobernuak eta Foru Komunitateko toki-erakunde nagusiek eta haien mendeko erakundeek 12/2010 Foru Legea zenbateraino betetzen duten aztertzea da. Lansarien murrizpena eta horretatik sortzen den aurrezki zertarako erabiltzen den egiaztatzea, zehazki.

Horregatik, hain zuzen, lan honen eremua hau izan da:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa.

- 5.000 biztanletik gorako udalak eta haien erakunde autonomoak:

- Iruña
- Antsoain
- Barañain
- Berriozar
- Burlata
- Eguesibar
- Lizarra
- Tafalla
- Tuteria

- Atarrabia

- Zizur Nagusia

- Altsasu

- Corella

- Arangurengo ibarra

- Zangoza

- Azkoién

- Baztan

- Noain

- Uharte

- San Adrian

- Cintruénigo

- Mankomunitate hauek:

- Iruñerria

- Mairaga

- Jurramendi

- Erribera

- Nafarroako Gobernuaren 38 sozietate publikoak, 2011n 13ra urritu zirenak. Eta baita ondoren aipatzen diren udalen eta mankomunitateen sozietate hauek ere:

- Areacea, S.A.

- Servicios Montejurra, S.A.

- Servicios de la Comarca de Pamplona

- ASIMEC

- Comirua

- Mercairua

- PCH

- ANIMSA

Metodologia orokor gisa Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatze-ko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioak aplikatu dira, eta azterlan honen helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaprobea berezi edo prozedura tekniko guztiak aplikatu dira.

Egin den lanaren izaera kontuan hartuta, txosten hau tramitatzerakoan ez dira aplikatu Kontuen Ganbera honen araudian aurreikusita dauden eztabaida teknikoko eta alegazioak aurkezteko faseak, baina txostenaren zirriborroa ezagutarazi da eta kontuan hartu dira hari egindako iruzkinak.

Nafarroako Kontuen Ganberak auditoria egin dien erakundeen datuak haiei buruz egindako lanetatik atera ditugu. Gainerako kasuetan inkesta bat bidali zitzaion erakunde bakoitzari; Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoei zegokienez, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoari bidali zitzaion inkesta hori, eta hura arduratu zen enpresa guztien erantzunak koordinatzeko lanaz.

Erriberako Mankomunitatearen erantzunik ez dugu jaso.

#### IV. ONDORIOAK

Ondoren Nafarroako Gobernuari, haren enpresa publikoei, udalei, mankomunitateei eta tokiko enpresa publikoei buruz egin den lanetik ateratzen diren ondorioak aurkeztuko ditugu.

Atal honetan aurkezten diren koadroetan 2010. urtean ekainetik aurrera egin ziren murrizpenen zenbatekoak eta 2010. urtean kontabilizatu ziren langile-gastuen guztirako zenbatekoak sartzen dira. Ohartarazi beharra dago kontabilizatu diren gastu hauek soldata-masa baino handiagoak direla, beste partida batzuk ere sartzen direlako, gizarte-zamak, esate baterako.

Bi arrazoi horiengatik, murrizpen-portzentajea ezin izan daiteke araudian adierazten dena. Murrizpen horrek langileria-gastuen guztirako kopuruan zer eragin izan duen gutxi gorabeherako ikuspegi bat emateko sartu dira datu horiek.

Azpimarratu beharra dugu, orobat, murrizpenen zenbatekoa estimazioaren arabera kalkulatu dela, kalkulatzeko formula bat ez dagoenez, eta horretan zenbat aldagaik eragiten duten ikusita, hala nola langileen altak eta bajak, gaixotasunengatiko edo beste arrazoi batzuegatiko baja-egoeak, pertsona bakoitzaren zirkunstantziengatik lansarietan izan daitezkeen gorabeherak, lansarietan sar daitezkeen kontzeptu aldakorrak, eta abar...

#### IV.1. OROKORRAK

II. atalean adierazi den bezala, toki-erakundeei dagokienez baizik ez du erabaki araudiak zertarako erabili behar diren neurri hauen bidez eskuratzeko diren baliabideak.

Araudiak dio, alde batetik, ordainsarien multzo osoaren murrizpenak ehuneko bostekoa izan behar duela eta, bestetik, E mailarako % 0,24tik A mailarako % 6,70era doan eskala bat ezartzen du, murrizpen horrek soldatarik apalenetan ahalik eta eraginik txikiena izan dezan. Irizpide horiek aplikatuz, erakunde bakoitzean desberdina da ateratzen den portzentajea, bertako langileak aurkitzen diren mailen arabera baita, eta ez dago probabilitate askorik ezarritako taula aplikatuz murrizpena ehuneko bostekoa izan dadin.

Beste alde batetik, Langileen Estatutuan aurreikusita dagoen lansarien eskala hautsi eta beste era honetara bihurtarazten du araudi horrek:

Maila	Soldata 2010ean	Eskala	Murrizketa %	Ondorioz ateratzen den urteko zenbatekoa	Eskala
A	27.096	2,00	6,70	25.281	1,87
B	22.354	1,65	4,86	21.268	1,57
C	18.289	1,35	3,54	17.643	1,30
D	15.580	1,15	1,38	15.365	1,13
E	13.548	1,00	0,24	13.516	1,00

Horren ondorioz, E mailaren eta A mailaren arteko eskala, Estatutuak 1 - 2 arteko erlazio batean arautua, gaurko eskalan 1 - 1,87 arteko erlazio batera bihurtzen da.

Enpresa publikoei dagokienez, Foru Komunitatearen Administrazioaren mendekoak eta gainerako Administrazio Publikoen mendekoak bereizten dira. Kasu honetan, administrazio horietako bakoitzak erabakiko du lansarietan zer murrizpen egin, legeak ezarritako irizpide orokorren arabera betiere.

Foru Komunitatearen Administrazioaren mendeko enpresei dagokienez, zuzendaritzako langileen lansari-murrizpena ehuneko 7tik ehuneko 12ra bitarteko eskala baten arabera egiten da, urte osoko zenbatekoaren arabera. Gainerako langileei legeak ezarritako irizpideen arabera aplikatuko zaie murrizpena, aplikatzekoak zaizkien hitzarmen kolektiboetan hitzartutakoa errespetatuz betiere.

Hitzarmen kolektiboak errespetatu behar horren kariaz izan dira zenbait errekurso epaitegi-

etan; horien ondorioz eman diren epai batzuek ezeztatu egiten dituzte zenbait enpresetan, dago-kion hitzarmen kolektiboan hitzartu gabe, erabaki diren lansari-murrizpenak.

#### IV. 2. NAFARROAKO GOBERNUA

Murrizpena langileen lansarien partidei aplikatzen zaie eta, aurrekontuen aldaketa baten bitartez, partida berri bat sortzen da, betearazpenik ez duena eta murrizpen horren emaitza jasotzen duena, 26.140.018 euroko kopuru bat. Langileria-gastuak, 1.164 milioikoak izan ziren, aurrekontuaren likidazioaren arabera. Horrenbestez, bada, 2010ean likidatutako guztizkoaren gain kalkulata, % 2,25ekoa izan zen murrizpena.

#### IV.3. NAFARROAKO GOBERNUAREN ENPRESA PUBLIKOAK

Enpresa hauek hainbat neurri aplikatu dituzte lansarien masa murrizteko. Kudeatzaileei egindako murrizpenez gainera, kontratu-deuseztatzeak, erretiroak, lanorduak ugaltzeak, langileak urritzeak eta abar egin dira, eta, emaitzen arabera, soldata-murrizpenak ezin zaizkie langileei.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak neurri multzo horri buruz egindako gutxi gorabeherako balioespena 1.200.492 eurokoa izan da, ekaina-abendua bitarteko epe horretarako; kopuru horrek langileria-gastuetan batez besteko murrizpena % 2,16koa izan dela esan nahi du.

Esan beharra dago, hala ere, zenbait enpresetan errekurtsioa jarri dela erabaki horien kontra, eta errekurtsio horiei buruz epaia eman zain zaudela.

Hauek dira kalkulatu diren beherapenak:

Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoak	2010eko murrizpenaren zenbatekoa (7 hilabete)	2010eko langileria-gastuen zenbatekoa	Murrizpenaren portzentajea
CPEN	8.750	243.451	% 3,59
VINSA	21.004	1.511.083	% 1,39
NASUINSA	26.194	992.918	% 2,64
NASURSA	29.440	1.503.059	% 1,96
CTPSA	5.600	198.588	% 2,82
ANL	10.243	394.954	% 2,59
CAT	5.779	286.295	% 2,02
RIEGOS DE NAVARRA	33.992	2.899.915	% 1,17
ITGA	94.727	2.954.609	% 3,21
ITGG	32.709	3.773.619	% 0,87
ICAN	36.807	1.080.121	% 3,41
VIVEROS	168.674	5.736.018	% 2,94
NAMAINSA	23.434	978.698	% 2,39
NILSA	40.466	2.196.468	% 1,84
BALUARTE	20.441	949.428	% 2,15
PLANETARIOA	13.178	515.875	% 2,55
ZIRKUITUA	9.843	503.119	% 1,96
SPRIN	4.533	309.770	% 1,46
RONCALIA	6.594	135.052	% 4,88
CNAI	23.673	1.120.753	% 2,11
NASERSA	37.905	2.199.565	% 1,72
OPNATEL	40.502	1.380.759	% 2,93
PIN	29.145	1.110.893	% 2,62
CEIN	70.917	3.356.582	% 2,11
ANAIN	14.953	667.049	% 2,24
NAVELSA	3.965	174.054	% 2,28
TRACASA.	292.919	12.584.557	% 2,33
GEDESA	15.581	867.027	% 1,80
SODENA	26.127	1.218.440	% 2,14
NAFINCO	17.438	341.337	% 5,11
NGA	11.449	392.210	% 2,92
MIYABI	13.786	340.234	% 4,05
POSUSA	3.227	195.586	% 1,65
SALINAS	6.497	2.411.161	% 0,27
Metatua	1.200.492	55.523.247	% 2,16

Nolanahi dela ere, sakonago, informazio zehatz, xehea erabiliz, eta urte osorako estimazio bat eginez, ondorio hauek ateratzen dira.

- Hiru enpresetan lansarien masaren murrizpena ehuneko bat baino gutxiagokoa dela: Nasersa % 4,97; SPRIN % 3,86; ITGG % 1,78.

- Posusa langilea etengabe urrituz doazen egoera batean aurkitzen da, eta horrenbestez ezin neur daiteke zenbateko murrizpena izan duen. Salinas enpresak lanaldiak luzatuz egin zuen doitzea.

- Enpresa batean murrizpena egin zen baina 2011n XPIa eguneratu zitzaizen langile guztiei, kudeatzaileari salbu.

Araudiak administrazio-kontseilueta kideen ordainsariez ezer zehazten ez bada ere, enpresen auditorietatik kontzeptu horren arabera egiten den gastua atera dugu, eta emaitza hauek izan dira:

- Hamabi enpresetan Kontseiluak ez du ordain-saririk jasotzen.

- Beste hamabi enpresetan, 2010ean Kontseiluari ordaindu zaizkion ordainsarien guztizkoa 2009an izan zen berbera izan da.

- Zazpi enpresetan, 2010ean ordainsarien guztizko kopurua 2009an baino txikiagoa izan da.

- Bi enpresetan, 2010ean ordainsarien guztizko kopurua 2009an baino handiagoa izan da.

- Enpresa batean 2010eko ordainsarien guztizko kopurua 2009an baino handiagoa izan da, baina kontuan hartu behar da urte horretan sortu zela.

Nolanahi dela ere, 2011n enpresa-sektore hau berrantolatatu da, eta sozietateak eta kontseilariak urritu egin dira. CPENren estimazioaren arabera, 450.000 euro inguru urritu dira dietak.

#### IV. 4. UDALAK

Aztertu diren udal guztiek aplikatu dute araudi- an aurreikusita dagoen murrizpena. Murrizpen horren zenbatekoa (udal bat salbuetsita) 2.172.777 eurokoa da, eta aurrekontuan langileria-gastu gisa likidatutako zenbatekoaren % 1,28 da. Langile-plantillen osieran dauden aldeek eragiten dituzten murrizpenaren zenbatekoen aldeak.

Ondoko koadroan adierazten da murrizpenaren zenbatekoa eta murrizpen horrek langileria-gastuei dagokienez duen erlazioa:

	2010eko murrizketaren zenbatekoa	2010eko langileria-gastuen zenbatekoa	Murrizpenaren portzentajea	Zertarako erabili den
Antsoain	37.500	3.383.223	% 1,11	Amortizazioa
Barañain	100.121	7.784.803	% 1,28	Gerakina
Berriozar	50.000	3.609.058	% 1,39	Etorkizuneko inbertsioak
Burlata	95.143	8.611.368	% 1,10	Gerakina
Eguesibar	59.309	3.640.650	% 1,63	Amortizazioa
Lizarra	95.000	5.941.947	% 1,60	Amortizazioa
Tafalla	114.065	6.587.705	% 1,73	Amortizazioa
Tutera	229.843	16.300.731	% 1,41	Gerakina
Atarrabia	40.000	4.566.293	% 0,88	Gerakina
Zizur	56.653	4.848.854	% 1,17	Etorkizuneko inbertsioak
Altsasu	23.268	2.408.783	% 0,96	Amortizazioa
Corella	28.000	2.850.188	% 0,98	Amortizazioa
Arangurengo ibarra	52.264	2.934.744	1,78 %	Etorkizuneko inbertsioak
Zangoza	25.702	2.276.198	% 1,13	Amortizazioa
Azkoien	15.000	1.594.710	% 0,94	Gerakina
Baztan	18.693	2.160.513	% 0,87	Amortizazioa
Noain	29.139	1.996.266	% 1,46	Amortizazioa
Uharte	20.758	1.960.525	% 1,06	Amortizazioa
San Adrian	E/e	2.103.465	-	
Cintruénigo	23.534	2.769.913	% 0,85	Gerakina
Iruña	1.058.785	83.631.062	% 1,27	Gerakina
Gutzira	2.172.777	169.857.534	% 1,28	

Nabarmendu beharra dago hiru entitatetan murrizpenaren zenbatekoa hurrengo ekitalditan aplikatzeko geratzen dela.

#### IV.5. MANKOMUNITATEAK ETA ENPRESA PUBLIKOAK

Ondoren eskura ditugun datuak adierazten dituen koadro bat aurkezten da.

Mankomunitateak eta Enpresa publikoak	2010eko murrizketaren zenbatekoa	2010eko langileria-gastuen zenbatekoa	Murrizpenaren portzentajea
Mairagako Mankomunitatea	12.000	1.176.180	% 1,02
Jurramendiko Mankomunitatea		70.696	
Servicios Montejurra, S.A.	E/E	4.121.089	
Iruñerriko Mankomunitatea	16.974	555.978	% 3,05
SCPSA	E/E	21.218.541	
ASIMEC	2.939	1.228.298	% 0,24
Comiruña	E/E	256.345	
Mercairuña	E/E	531.524	
PCH	E/E	296.692	
ANIMSA	E/E	4.153.090	

Mairagako Mankomunitateak araudian aurreikusita dauden murrizpenak egin ditu eta zorra amortizatzeko bideratu ditu. Iruñerrian, Mankomunitateko langileei aplikatu zaizkie, eta sozietateko langileei dagokienez –hauek dira gehiengoa, gainera–, zuzenbide-gaietan adituei txostenak eskatu zaizkie eta oraindik ez da erabakirik hartu. Jurramendiko Mankomunitateari eta haren sozietateari dagokienez ere, egoera berdina da.

Udal enpresetan, kudeatzaileen lansarrietan eta kontseilarien dietetan murrizpenak egin ziren, araudiak dieta horiei dagokienez ezer zehazten ez

duen arren. Gainerako langileei dagokienez, irizpide orokor bat hartzeko zain geratu zen, baina oraindik ez ezer erabaki. Bi kasutan, dieten guztizko zenbatekoa 2010ean 1009an baino handiagoa dela ikusi da, dieten zenbatekoa gutxitu den arren.

Txosten hau eman da indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas.

## **Arartekoaren Kontu Orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko ekainaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Arartekoaren Kontu Orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina, ikusirik, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2012ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Arartekoaren Kontu Orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

#### **I. Sarrera (24. or.).**

I.1. Arartekoaren eginkizunak eta haren bulegoko langileak (24. or.).

I.2. Araubide ekonomikoa eta kontabilitatekoa (25. or.).

I.3. Aplikatzekoa den araudia (25. or.).

#### **II. Helburuak eta norainokoa (25. or.).**

#### **III. Iritzia (25. or.).**

Eranskina: finantzen egoera-orriak (27. or.).

1. 2011ko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa (27. or.).

2. 2011ko aurrekontu-emaiza (28. or.).

3. Diruzaintzako gerakina, 2011ko abenduaren 31n (29. or.).

4. 2011ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (30. or.).

5. 2011ko ekonomia- eta ondare-emaizaren kontua eta haren aplikazioa (31. or.).

#### **I. SARRERA**

Kontuen Ganberak Nafarroako Arartekoaren Kontu Orokorraren erregularitasun-fiskalizazioa, 2009ko ekitaldiari buruzkoa, egin du, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz.

Fiskalizazio hori Kontuen Ganberak 2012ko ekitaldirako onetsitako Jarduera Programan sartu zen. Azterketa-lana 2012ko maiatzean egin zuen auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako talde batek, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu Arartekoaren bulegoko langileei.

#### **I.1. ARARTEKOAREN EGINKIZUNAK ETA HAREN BULEGOKO LANGILEAK**

Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubide eta askatasunak defenditzeko eta hobeki babesteko. Haren eginkizun nagusia herritarrak Administrazio Publikoaren abusu eta akatsen aurrean babestea da, halakorik gertatuko balitz.

Urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa Erreformatzekoak, 18 ter artikuluan estatutu-mailako kategoriara jasotzen du Nafarroako Arartekoa.

Nafarroako Parlamentuak hautatzen eta izendatzen du, eta urtero haren aurrean erantzuten du egindakoarengatik. Gaur egun kargu hori betetzen duen pertsona 2007ko martxoaren 22an izendatua izan zen, sei urterako.

Arartekoak modu askean izendatzen ditu bere aholkulariak –bost–, bai eta bere eginkizunak betetzeko beharrezkoak dituen konfiantzazko karguak ere.

Nafarroako Arartekoaren 2011ko plantilla organikoan hamabi lanpostu agertzen dira: aldi baterako zazpi langile eta bost funtzionario. Urte amaieran hutsik daude gelazain-lanpostua eta administrari-lanpostu bat. Azken hori administrazio-kontratudun langile batek betetzen du.

2012rako langile-plantillaren zirriborroan, Nafarroako Foru Komunitatearen defizit-helburua betetzeko, lau lanpostu gutxiago daude plantillan: bi aholkulari, administrazio-bulegari bat eta gelazain bat.



## I.2. ARAUBIDE EKONOMIKOA ETA KONTABILITATEKOA

Arartekoa Nafarroako Parlamentuak duen araubide beraren mende dago kontabilitaterako, kontu-hartzailtzarako, gastuak baimentzeko, kontrataziorako eta ondasun eta eskubideak eskuratzeko; eta kontabilitate publikoaren araubidearen pean dago orobat.

Arartekoaren aurrekontu-proiektua Nafarroako aurrekontu orokorretan sartzen da, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren parte dira.

2010ean Kontularitza Publikoko Plan Orokorra onartu ondoren, Nafarroako Arartekoak kontularitzako plan horren arabera aurkeztu zituen bere kontuak 2011. urtean.

Horrela, aurreko urteetan bezala, aurrekontuaren likidazioak, egoera-balantzeak, ekonomia- eta ondare-emaizaren kontuak eta memoriak osatzen dute Kontu Orokorra, eta urte horretan ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta esku-diruen fluxuarena gehitzen zaizkio.

Ekitaldi honetan balantzeko ibilgetuaren elementuetan amortizazioak aplikatu dira. 2010eko ekitaldia arte kalkulaturako amortizazio-zenbatekoak funts berekien kontuak dituzte ordain gisa, eta 2011ko ekitaldikoek emaitza-kontuetan dituzte ordainak. Aurreko urteko egoera-orriak Kontaduria Planaren egitura berrira egokituta sartu dira, alde-raketa errazago egin ahal izateko.

2011ko ekitaldiko datu azpimarragarri hauek adieraziko ditugu:

- Aitorturiko betebeharrak 932.784 euro egiten dute, eta haien betetze-maila ehuneko 79koa izan da. 2010. urtekoarekin alderatuz gero, betebeharrak horiek ehuneko bi urritu dira.

- Gastua era honetan banatzen da, batez ere, kapituluz kapitulu: langile-gastuak ehuneko 66; ondasun arruntak eta zerbitzuak, ehuneko 25.

- Aitorturiko diru-sarrerak 1.060.877 euro egin zuten, eta haien betetze-maila ehuneko 90ekoa izan zen. Diru-sarrera horien ia % 100 Nafarroako Gobernuaren transferentzien bidez eginak izan ziren. Zehazki, Nafarroako Gobernutik heldu ziren transferentziek 1.057.043 euro egin zuten; horietatik 969.240 funtzionamendu-gastuetara bideratu ziren, eta 87.804 euro, berriz, inbertsio-gastuetara. Diru-sarreraren betetze-maila aurreko urteetan baino txikiagoa izatea, defizit-helburua betetzeko, eta urritze hori funts gutxiago eskatu izanari zor zaio.

- Nafarroako Gobernuaren Diruzaintzari 128.093 euro itzuliko zaizkio, ekitaldiko gerakin gisa.

## I.3. APLIKATZEKOA DEN ARAUDIA

Arartekoari 2011n aplikagarri zaion araudia ondoko lege eta erregelamendu hauek osatzen dute:

- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea, martxoaren 7ko 3/2005 Foru Legeak eta otsailaren 21eko 3/2008 Foru Legeak aldatua.

- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuak 2005eko azaroaren 23an onetsia.

- Kontabilitate Plana, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1994ko abenduaren 12an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

## II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Lan honen helburua ondoko puntuoi buruz iritzia ematea da:

a) Ea Arartekoaren 2011ko Kontu Orokorrek zehazki islatzen duen alderdirik behinenetan erakunde horren ekonomia- eta finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta ea guztiok onartuak diren kontaduriako printzipio eta arauari jarraituz prestatu den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) 2011n aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeria zenbateraino errespetatu duen erakunde horrek.

Fiskalizazioaren norainokoari dagokionez, kontua osatzen duten finantzen egoera-orri nagusiak arrazoizkoak eta koherenteak ote diren, eta haren agiri- eta justifikazio-euskarriak aztertzea izan da lanaren ardatza. Lanaren helburuei dagokienez behar adina froga lortzeko beharrezkotzat jo diren hautapropa eta prozedura guztiak egin dira.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz –Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatuak ditu– egin da lana.

## III. IRITZIA

2011ko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren erregulartasunaren fiskalizazioa eginda, hona gure iritzia:

Gure iritzian, Nafarroako Arartekoaren 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorrek irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoerari

dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

Orobat, 2011ko ekitaldian zehar, Nafarroako Arartekoaren jarduera ekonomiko-finantzarioa

legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da, oro har.

Txosten hau eman da indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

**ERANSKINA: FINANTZEN EGOERA-ORRIAK****I. 2011KO GASTUEN ETA DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

## Gastuak kapituluz kapitulua

Kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko kredituak	Aitorturiko betebeharrak	Betetako portzentajea
1. Langileria-gastuak	713.733,47	0,00	713.733,47	622.480,80	87,21
2. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	324.900,00	33,87	324.933,87	228.846,53	70,43
4. Transferentzia arruntak	38.500,00	0,00	38.500,00	34.195,94	88,82
6. Inbertsio errealak	82.000,00	0,00	82.000,00	47.260,90	57,64
8. Finantza-aktiboak	6.000,00	0,00	6.000,00	0,00	0,00
9. Finantza-pasiboak	11.752,33	-33,87	11.718,46	0,00	0,00
Guztira	1.176.885,80	0,00	1.176.885,80	932.784,17	79,26

## Diru-sarrerak kapituluz kapitulua

Kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubideak	Betetako portzentajea
3. Tasak eta bestelako diru-sarrera batzuk	100,00	0,00	100,00	0,00	0,00
4. Transferentzia arruntak	1.076.933,47	0,00	1.076.933,47	969.240,12	90,00
5. Ondarearen diru-sarrerak	100,00	0,00	100,00	1.740,24	1.740,24
7. Kapital-transferentziak	97.559,53	0,00	97.559,53	87.803,58	90,00
8. Finantza-aktiboak	2.092,80	0,00	2.092,80	2.092,80	100,00
9. Finantza-pasiboak	100,00	0,00	100,00	0,00	0,00
Guztira	1.176.885,80	0,00	1.176.885,80	1.060.876,74	90,14

## 2. 2011KO AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptuak	2011				2010			
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebehargarbiak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaiza	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebehargarbiak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaiza
a. Eragiketa arruntak	970.980,36	885.523,27		85.457,09	1.120.029,19	930.876,14		189.153,05
b. Kapital-eragiketak	87.803,58	47.260,90		40.542,68	119.778,00	20.909,76		98.868,24
c. Merkataritzako eragiketak	0,00	0,00		0,00	0,00	0,00		0,00
1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a+b+c)	1.058.783,94	932.784,17		125.999,77	1.239.807,19	951.785,90		288.021,29
d. Finantza-aktiboak	2.092,80	0,00		2.092,80	1.918,40	4.185,60		-2.267,20
e. Finantza-pasiboak	0,00	0,00		0,00	0,00	0,00		0,00
2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e)	2.092,80	0,00		2.092,80	1.918,40	4.185,60		-2.267,20
I. Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (1+2)	1.060.876,74	932.784,17		128.092,57	1.241.725,59	955.971,50		285.754,09
3. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakinez finantzatuta gastatutako kredituak			0,00				772,59	
4. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze negatiboak			0,00				0,00	
5. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze positiboak			0,00				0,00	
II. Doikuntzak guztira (3+4+5)			0,00	0,00			772,59	772,59
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA (I+II)				128.092,57				286.526,68

## 3. DIRUZAINZAKO GERAKINA, 2011KO ABENDUAREN 31N

Osagaiak	2011ko ekitaldia	2010eko ekitaldia
1. (+) Funts likidoak	226.863,00	308.548,43
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	492,80	0,00
(+) aurrekontu korrontetik	0,00	0,00
(+) aurrekontu itxietatik	0,00	0,00
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	492,80	0,00
(+) Merkataritzako eragiketetatik	0,00	0,00
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak.	227.355,80	308.548,43
(+) aurrekontu korrontetik	59.059,54	12.076,50
(+) aurrekontu itxietatik	0,00	0,00
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	168.296,26	296.471,93
(+) Merkataritzako eragiketetatik	0,00	0,00
4. (+) Aplikatzeko dauden kontusailak	0,00	0,00
(+) Egindako kobrantzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	0,00	0,00
(+) Egindako ordainketak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	0,00	0,00
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2+3+4)	0,00	0,00
II. Gehiegizko finantzaketa atxikia	0,00	0,00
III. Kobratzeko zailak diren saldoak	0,00	0,00
IV. Diruzaintzako atxiki gabeko gerakina = (1-II-III)	0,00	0,00

## 4. 2011KO ABENDUAREN 31KO EGOERA-BALANTZEA

AKTIBOA	2011	2010	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2011	2010
A) AKTIBO EZ ARRUNTA	597.348,09	770.253,16	A) ONDARE GARBIA	597.522,49	772.520,36
1. Ibilgetu ukiezia	12.268,80	32.732,51	I. Jarritako ondarea	0,01	0,01
3. Aplikazio informatikoak	12.268,80	32.732,51	II. Sortutako ondarea	597.522,48	772.520,35
II. Ibilgetu materiala	585.079,29	737.520,65	1. Aurreko ekitaldietako emaitzak	597.522,48	772.520,35
2. Eraikinak	444.174,73	491.923,43	Ondarea	602.984,48	777.982,35
4. Ondare Historikoaren ondasunak	41.508,59	41.508,59	Lagatako ondarea	-5.462,00	-5.462,00
5. Bestelako ibilgetu materiala	99.395,97	204.088,63			
Makineria, instalazioak eta tresneria	11.067,88	41.779,18			
Altzariak eta tresnak	25.158,13	66.794,03			
Informazio-prozesuetako ekipoa	44.929,45	78.094,81			
Bestelako ibilgetu materiala	18.240,51	17.420,61			
B) AKTIBO ARRUNTA	227.530,20	310.815,63	C) PASIBO ARRUNTA	227.355,80	308.548,43
III. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	492,80	0,00	IV. Hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	227.355,80	308.548,43
2. Kobratzeko dauden beste kontu batzuk	443,50	0,00	I. Kudeaketa-eragiketengatik hartzekodunak	59.059,54	12.076,50
3. Administrazio publikoak	49,30	0,00	3. Administrazio publikoak	168.296,26	296.471,93
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak	174,40	2.267,20	Foru Ogasun Publikoa hartzekodun, PFEZa dela-eta	31.510,59	0,00
2. Kredituak eta zorra adierazten duten beste balio batzuk	174,40	2.267,20	Foru Ogasun Publikoa, kreditu-itzulketak dela-eta	128.092,57	286.616,29
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	226.863,00	308.548,43	Gizarte Segurantzaren hartzekodun	8.693,10	9.855,64
2. Diruzaintza	226.863,00	308.548,43			
Kutxa	820,14	543,95			
Bankuak eta kreditu-erakundeak	226.042,86	308.004,48			
AKTIBOA, GUZTIRA	824.878,29	1.081.068,79	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	824.878,29	1.081.068,79
ORDENA KONTUAK	484,00	484,00	ORDENA KONTUAK	484,00	484,00
Abalak eta bermeak	484,00	484,00	Abalak eta bermeak	484,00	484,00
Abal-emaileak	484,00	484,00	Jasotako abalak	484,00	484,00

## 5. 2011KO EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA ETA HAREN APLIKAZIOA

KONTUAK	2011	2010
<b>2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak</b>	<b>1.057.043,70</b>	<b>1.239.769,63</b>
a) Ekitaldikoak	1.057.043,70	1.239.769,63
a.2) Transferentziak	1.057.043,70	1.239.769,63
Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	87.803,58	119.778,00
Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak	969.240,12	1.119.991,63
A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak guztira (1+2+3+4+5+6+7)	1.057.043,70	1.239.769,63
<b>8. Langileria-gastuak</b>	<b>-622.480,80</b>	<b>-627.714,59</b>
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	-533.639,53	-535.972,85
Arartekoaren soldatak eta lansariak	-64.543,22	-69.289,04
Aldi baterako langileen soldatak eta lansariak	-340.373,78	-332.046,93
Funtzionarioen soldatak eta lansariak	-106.980,53	-106.908,66
Kontratupeko langileen soldatak eta lansariak	-21.742,00	-27.728,22
b) Gizarte-zamak	-88.841,27	-91.741,74
Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantza	-88.841,27	-91.741,74
<b>9. Eginiko transferentziak eta emandako diru-laguntzak</b>	<b>-34.195,94</b>	<b>-36.136,53</b>
<b>11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk</b>	<b>-228.846,53</b>	<b>-276.304,41</b>
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	-228.846,53	-276.304,41
<b>12. Ibilgetuaren amortizazioa</b>	<b>-32.838,32</b>	<b>0,00</b>
B) Kudeaketa arrunteko gastuak guztira (8+9+10+11+12)	-918.361,59	-940.155,53
I. KUDEAKETA ARRUNTEKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (A+B)	138.682,11	299.614,10
<b>13. Ibilgetu ez finantzarioaren eta salgai dauden aktiboen balio-galera eta besterentzeagatiko emaitzak</b>	<b>-1.120,03</b>	<b>-33.040,43</b>
Bajak eta besterentzeak	-1.120,03	-33.040,43
II. ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZA (I+13+14)	137.562,08	266.573,67
<b>15. Finantza bidezko diru-sarrerak</b>	<b>1.740,24</b>	<b>37,56</b>
b) Balio negoziagarri batzuen eta aktibo ibilgetuko kredituenak	1.740,24	37,56
b.2) Bestelakoak	1.740,24	37,56
III. ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA (15+16+17+18+19+20)	1.740,24	37,56
IV. EKITALDIKO EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (II+III)	139.302,32	266.611,23

---

EMAITZAREN APLIKAZIOA	2011
Emitza ekonomikoa eta ondarezkoa	139.302,32
Kredituak sartzea	0,00
Ondarea	-11.209,75
Inbertsioak	13.302,55
Ekitaldiko altak	47.260,90
Birsailkatzeak	-33.958,35
- Aktibo eta pasibo finantzarioen alde garbia	-2.092,80
Emitza ekonomiko eta ondarezko doitua	128.092,57
Atxikitako funtsak, sartzeko daudenak	0,00
Ogasun publikoari itzuli beharreko funtsak	128.092,57

---